# 1953 2013 cineclubfas

60 urte años




El mejor cine en V.O.

J.B.an zinemarik onena

**Enero · Febrero · Marzo / Urtarrila · Otsaila · Martxoa**

fasZine · 03

**Fas·Zine** es una revista digital donde se exponen las actividades cinematográficas, las conferencias y los invitados del **cineclubfas** de Bilbao, y que sirve como espacio abierto de reflexión crítica sobre la difusión de la cultura cinematográfica

**MUY PRONTO EN NUESTRA WEB: WWW. CINECLUBFAS.COM**



*Cuentos de Tokio* (*Tokyo monogatari*, Yasujiro Ozu, 1953)

# PRESENTACIÓN · AURKEZPENA

## 1er TRIMESTRE DEL CURSO 2013 · 2013KO LEHENENGO HIRUHILEKOA

**60º Aniversario**

Porque nos gusta el **cine** hemos llegado al 60º Aniversario. Porque nos gustan las películas y nos gusta hablar de ellas.

Porque una película empieza cuando se apagan las luces y es en ese instante cuando toma vida y vive mientras viva en nosotros, mientras hablamos de ella, la interiorizamos y la hacemos nuestra, y ya pasa a formar parte por unos instantes, a veces eternos, de nuestra propia vida. Y mientras eso sea así, continuaremos.

Porque el **cine** refleja la vida de un tiempo y un momento, y a veces la embellece y nos permite ver y creer cosas que parecen imposibles; esa es la magia del cine, la que atrapa el corazón y nos engancha a ella.

Porque queremos un **cine** que cada día es más difícil de ver, y queremos esas películas que plantean más preguntas que respuestas o aquellas que simplemente son para dejarse llevar por nuestros sentidos, sentimientos o emociones.

También queremos servir desde nuestro cineclub Fas de escaparate a autores con una apuesta clara por una filmografía arriesgada y que tienen menos posibilidades de acceder a los circuitos de exhibición.

Hacer visibles esas historias es parte del Fas, esos 60 años de andadura en la que ha ido esquivando la censura política en sus inicios y ahora la tiranía de los mercados, que hacen que no siempre podamos ver aquello que deseamos. Y mientras existan personas que aman el **cine** y quieran hablar de él continuaremos programando películas para que nuestras socias y socios sigan disfrutando del **cine.**

**Txaro**

**60. urteurrena**

Zinema gustuko dugula eta, 60. urteurrenera heldu gara, filmak gustatzen zaizkigulako, baita beraietaz hitz egitea gustuko dugulako ere.

Filma hasten delako argiak itzaltzen direnean eta une horretantxe delako bizia hartzen duenean eta bizi da gure artean bizi den bitartean, film horretaz hitz egiten dugun bitartean, barneratzen dugunean, eta geure egiten dugunean, eta ordutik aurrera gure bizitzaren zati izatera heltzen da une batzuetan, zenbaitetan betierekoak badira ere. Eta hori hala den bitartean, jarraitu egingo dugu.

Zinemak garai eta une bateko bizimodua islatzen duelako, eta batzuetan edertu egiten du azken hori eta ezinezko diruditen hainbat gauza ikusi eta sinetsarazten digu, horixe da zinemaren magia, bihotza harrapatzen duena eta beraren mende gauzkana.

Ikusten gero eta zailagoa den zinema ikusi nahi dugula-eta, erantzun baino galdera gehiago planteatzen dituzten filmak nahi ditugula-eta, edo gure zentzumen, sentimendu eta emozioek eramaten uzteko filmak gustuko ditugula-eta.

Horrez gain, gure zineklubetik zinemagintza arriskutsuaren alde egiten duten zinemagileen erakusleiho izan nahi dugu eta aukera gutxiago dutenak euren lanak erakutsi ahal izateko. Istorio horiek erakustea Fasen zati bat da, 60 urteko ibilbidea zeinetan hasieran zentsura politikoa eta orain merkatuen nagusikeria saihestuz joan den. Azken hauek zenbaitetan ikusarazten digute ikusi nahi ez duguna. Eta **zinema** maite duten eta berataz hitz egin nahi duten lagunak dauden bitartean, filmak programatzen jarraituko dugu gure bazkideek **zinema**z goza dezaten.

**Txaro**

# HAZTE SOCIO
# BAZKIDE EGIN

1953 2013

60 urte años



Harriet Andersson en *Un verano con Mónica* (*Sommaren med Monika*, Ingmar Bergman, 1953)

La mejor oferta cinematográfica de Bilbao
Bilboko zine eskaintzaren onena

Todas las sesiones en V.O.
Emanaldi guztiak J.B.an

Conferencias sobre cine
Zinemari buruzko hitzaldiak

Coloquios con directores, actores, críticos,...
Zuzendari, aktore, kritikariekin,... solasaldiak

Acceso a la biblioteca del cineclub
Zineklubaren liburutegia erabiltzeko aukera

Invitación a eventos cinematográficos
Zine ekitaldienetarako gonbidapenak

De lunes a viernes precio del día del espectador en los Multicines
Multicines aretoetan astelehenetik ostiralera ikuslearen eguneko prezioan

5% de descuento en librería Cámara
%5 deskontua Cámara liburutegian




## EL HOMBRE MOSCA V.O.S.E. 19.45 h. · 08.01.2013 · SESIÓN 2119 EMANALDIA

**SAFETY LAST!** · USA · 1923 · 73 min · **Dir / Zuz** Fred C. Newmeyer y / eta Sam Taylor · **G** Harold Lloyd y / eta Sam Taylor · **Fot / Arg** Walter Lundin · **Mnt** Thomas J. Crizer · **M** Don Hulette · **Prd** · Pathé · **Int / Akt** Harold Lloyd · Mildred Davis · Bill Strother · Noah Young · Westcott B. Clarke

**CM: BEERBUG (A)** · Euskadi · 2012 · 8 min · **Dir / Zuz** Ander Mendia · **Primer Premio de Animación en Cortada´12**

***El hombre mosca*** supone la obra maestra de Harold Lloyd. La escena del genial cómico escalando un edificio –de quien se cuenta que en esta cinta perdió el dedo pulgar y el índice de su mano derecha en su hazaña cinematográfica– supone uno de los momentos más grandes del cine mudo, y su clímax –Harold colgado de las manillas del reloj, al que nuestro cineclub rinde homenaje desde su logotipo– sigue siendo una de las escenas estelares de la historia del séptimo arte. Una *delicatessen* del humor clásico que posee situaciones muy ocurrentes con un alto grado de suspense y dinamismo en la acción, una estupenda planificación de gags, personajes principales bien trazados y un óptimo empleo humorístico de los caracteres secundarios y de los escenarios, en esta memorable "subida inmobiliaria", una metáfora del ascenso social y vital que valora la ambición y el riesgo como claves para conseguir los fines propuestos.

**Harold** Clayton **Lloyd** (Buchard, Nebraska, 1893ko apirilaren 20a – Beverly Hills, Kalifornia, 1971ko martxoaren 8a) zinema mutuaren garaiko aktore estatubatuarra izan zen, galestar familiakoa. Charles Chaplin eta Buster Keatonekin batera sasoi hartako aktorerik ezagunenetarikoa izan zen. 200 komediazko pelikulatan lan egin zuen 1914 eta 1947 bitartean. Bestela, 1942an *The Old Gold Comedy Theater* izeneko irrati serieari ekin zion, jarduera horretan hiru urtez egongo zelarik. 1953an Ohorezko Oscar Saria jaso zuen.

Bere filmografian hurrengo titulu hauek aurkeztu ahal dugu, besteak beste: *A Sailor-made Man* (1922); *Grandma's Boy* (1922); *Safety Last!* (1923); *Why Worry?* (1923); *Girl Shy* (1924); *The Freshman* (1925); *The Kid Brother* (1927) edo *Speedy* (1927).

**Sesión Especial Inauguración 60º Aniversario cineclubfas*-eko 60. urteurren hasiera emateko Emanaldi Berezia***
**Inv./Gonb.: Ander Mendia, director del cortometraje / *laburmetraiaren zuzendaria* y / *eta* Adela González, periodista y presentadora de TV / *kazetaria eta TBko aurkezlea***



**AMOR V.O.S.E.** **20.00 h. · 10.01.2013 · SESIÓN 2120 EMANALDIA**

**AMOUR** · Austria / Francia / Alemania · 2012 · 127 min · **Dir / Zuz** Michael Haneke · **G** Michael Haneke · **Fot / Arg** Darius Khondji · **Mnt** Monika Willy · **Int / Akt** Jean-Louis Trintignant · Emmanuelle Riva · Isabelle Huppert

**Palma de Oro a la Mejor Película en el Festival de Cannes 2012 · Mejor película, director, actor y actriz en los Premios del Cine Europeo 2012**

La película más galardonada en la historia del reciente cine europeo; la obra magna y el film más íntimo de uno de los mejores autores contemporáneos: **Michael Haneke**, en un registro desconocido para él, y con unas interpretaciones absolutamente conmovedoras; una tierna, desgarradora e impecablemente dirigida historia que quizás sea la película más inolvidablemente honesta sobre la vejez que se haya hecho nunca; un trabajo tan bueno que parece un milagro que no caiga en un solo momento en ninguno de los muchos agujeros sentimentales que podría haber; un sutil y sobresaliente estudio de los efectos de la demencia y el envejecimiento, cuyos diálogos pueden llegar a derrumbar lo más sólido de nuestra alma; un deslumbrante y lúcido paseo del director austríaco por los laberintos de la condición humana; eso es ***Amour***. Por supuesto, siempre habrá alguien a quien no le guste este soneto.

Maitasunak ez omen du adinik, ez gutxienez Michael Haneke zuzendariarentzat. Filmaren protagonistak Georges (Jean-Louis Trintignant) eta Anne (Emmanuelle Riva) dira, 80 urte inguruko bi musika-irakasle. Bien arteko amodioa da gai nagusia. Annek, gainera, iktus bat jasan beharko du, benetako amodioa azaleratzen lagunduko duena. *Amour* hunkigarria da benetan, eta seguruenik Hanekeren filmik zintzoena. Sentimendu errealenetan eta gordinetan barrena doa zuzendari austriarra, eta narrazio leun eta lasaiaz baliatzen da istorioari dramatismoa gehitzeko. Aktoreen lana ere paregabea da; besteak beste, Emmanuelle Rivak eta Jean-Louis Trintignantek sortutako buruz burukoa, argumentuaren euskarri nagusienetarikoa. Zer esanik ez, Isabelle Huppert-en papera, Hanekerekin *The Piano Teacher* (2001) pelikulan ere lan ikaragarria egin zuena.

**Sesión Especial: Preestreno de Amour / *Emanaldi Berezia: Amour aurrestreinaldia* · Proyección en los cines Golem / *Golem zinemetan emanaldia***

**Inv./Gonb.: Juan Zapater, crítico de cine y director de BilbaoArte / *BilbaoArte Fundazioaren zuzendaria***



## ESTO NO ES UNA PELÍCULA V.O.S.E. 19.45 h. · 15.01.2013 · SESIÓN 2121 EMANALDIA

**IN FILM NIST (D)** · Irán · 2011 · 75 min · **Dir / Zuz** Jafar Panahi y / eta Mojtaba Mirtahmasb · **G** Jafar Panahi · **Fot / Arg** Jafar Panahi y / eta Mojtaba Mirtahmasb · **Mnt** Jafar Panahi · **Prd** · Jafar Panahi Film Productions · **Int / Akt** Jafar Panahi como él mismo / norbera

**CM: 8 (OCHO) (F)** · Euskadi · 2011 · 11 min · **Dir / Zuz** Jorge Barrio

**Jafar Panahi**, director iraní de títulos esenciales del cine contemporáneo como *El Globo blanco* o *El espejo*, y ganador del León de Oro en Venecia con *El círculo*, ha sido condenado a 6 años de prisión y la prohibición de viajar al extranjero, conceder entrevistas o hacer cine en los próximos veinte años como consecuencia de su participación en la *Revolución Verde*. A partir de ahí Panahi concibe ***Esto no es una película*** como un acto de rebeldía y de denuncia de la represión cultural, filmando un documental dentro de su propia casa donde se encuentra bajo arresto domiciliario y de donde consigue fugarse a través de su imaginación y de la ayuda del documentalista y amigo Motjaba Mirtahmasb. Circula la leyenda de que la copia de *Esto no es una película* que se proyectó en Cannes salió de Irán en un pendrive USB escondido dentro de un pastel. Más allá de que la anécdota sea cierta o no, este trabajo de Panahi se sitúa dentro del cine clandestino marcado por la falta de libertades.

Film hau, 2011n zinearen arloan gertaera handitzat hartutakoa, zinea zer den hausnartzetik harago doa, Jafar Panahi-ak diharduen zinegile lanbidean bertan desobedientzia zibila adierazteko ekintza bihurtzeraino. Panahik Veneziako zinemaldiko Urrezko Palmondoa irabazi zuen 2000 urtean, *Dayereh* filmearekin. Irango zinemagile inportanteenetakoa da, eta atzerrian ospe handienetakoa duena. Baina Panahiri 20 urteko zigorra ezarri diote, denbora-tarte horretan filmatu ezin gabe, eta hauxe da film honetan bildu duena: etxean atxilotuta bizi duen egunerokotasuna, beste zinegile baten, Mojtaba Mirtahmasben ikuspegitik abiatuta. Hauxe da emaitza, askatasun artistikoari buruzko dokumentu bat, baina baita ideiei, denborari eta zineak betetzen duen zereginari buruzkoa ere.

**Inv./Gonb.: Jorge Barrio, director del cortometraje / *laburmetraiaren zuzendaria* y / *eta* director de Kinema / *Kinemaren zuzendaria***



**DAVID TRUEBA** **19.45 h. · 22.01.2013 · SESIÓN 2122 EMANALDIA**

**Filmografía esencial / Oinarrizko filmegintza**: Madrid, 1987 (2011) · ¿Qué fue de Jorge Sanz? (TV, 2010) · La silla de Fernando (2006) · Bienvenido a casa (2005) · Balseros (guionista, 2003) · Soldados de Salamina (2002) · Obra maestra (2000) · La buena vida (1996) · Los peores años de nuestra vida (guionista, 1994)

**David Trueba** (Madrid, 1969): periodista; novelista (ha publicado novelas como *"Abierto toda la noche"*, *"Cuatro amigos"* y *"Saber perder"*, Premio Nacional de la Crítica en 2008); guionista de cine (como guionista ha trabajado en las películas *Amo tu cama rica*, *Los peores años de nuestra vida*, *Two Much*, *Perdita Durango*, *La niña de tus ojos* o el documental *Balseros*, nominado al Oscar al Mejor Documental 2004) y director de cine. El salto a la dirección cinematográfica se produjo en 1996 con *La buena vida*, a la que siguió, en 2000, *Obra maestra* y en 2002 se embarcó en el proyecto más ambicioso de su carrera cinematográfica: la adaptación a la gran pantalla de la novela de Javier Cercas *Soldados de Salamina*. En el año 2005 rodó *Bienvenido a casa* y en 2006, *La silla de Fernando*. Su última incursión en el séptimo arte ha sido este personal proyecto titulado ***Madrid 1987***, con el que ahora regresa al Cineclub Fas, después de visitarnos en mayo de 2005 con *Soldados de Salamina*.

**David Trueba** (Madril, 1969): kazetaria (kazetaritza ikasi zuen Informazio Zientzien Fakultatean), eleberrigilea (zenbait nobela argitaratu ditu, besteak beste: *"Abierto toda la noche"*, *"Cuatro amigos"* eta *"Saber perder"*, Kritikaren Sari Nazionala 2008an), gidoigilea (gidoilari gisa makina bat pelikulatan aritu da: *Amo tu cama rica*, *Los peores años de nuestra vida*, *Two Much*, *Perdita Durango*, *La niña de tus ojos* baita *Balseros* dokumentalean ere, Dokumental Onenaren Oscar sarirako hautagaia 2004an) eta zinemaren zuzendaria. Zinema zuzendari gisa 1996an hasi zen lanean *La buena vida* filmarekin; horren ondoren, 2000. urtean, *Obra maestra* zuzendu zuen eta 2002an bere zinema ibilaldiaren proiektu handienari ekin zion, Javier Cercasen *Soldados de Salamina* nobela pantaila handira eramateko proiektuari, alegia. 2005ean *Bienvenido a casa* filma estreinatu zuen eta 2006an *La silla de Fernando*. Zazpigarren artean egin duen azken lana –orain Fas zineklubean aurkezten dena– ***Madrid 1987*** izan da.



**MADRID 1987 V.O.** **19.45 h. · 22.01.2013 · SESIÓN 2122 EMANALDIA**

**MADRID 1987** · España · 2011 · 104 min · **Dir / Zuz** David Trueba · **G** David Trueba · **Fot / Arg** Leonor Rodríguez · **Mnt** Marta Velasco · **M** Irene Tremblay · **Prd** · Jessica Huppert Berman / Buenavida Producciones S.L. · **Int / Akt** José Sacristán · María Valverde · Ramón Fontserè

En un caluroso día de julio de 1987, con la ciudad vacía, Miguel, un veterano articulista, temido y respetado, se cita en un café con Ángela, una joven estudiante de Periodismo. Entre ellos, desde el primer instante, se desarrolla un duelo desigual entre el deseo, la inspiración, el talento y las perspectivas profesionales. Obligados a convivir en una jornada muy particular, ambos tratarán de sobrevivir al roce emocional.

Una película atípica, física y textual al mismo tiempo, que somete a la pareja de actores protagonistas: José Sacristán y María Valverde, a unas cotas de exigencia dramática que ellos saldan con dos interpretaciones magistrales.

Hiria hutsik, 1987ko uztaileko egun bero bat. Miguel artikulugile beterano, beldurgarri eta errespetatua Ángelarekin elkartuko da; Kazetaritza ikasten ari den neska gaztearekin, alegia. Hasiera-hasieratik, desioz, inspirazioz, talentuz eta lan-aukeraz nahasitako duelu gorabeheratsua sortuko da bien artean. Egun erabat berezi horretan elkarrekin bizitzera derrigorturik, harreman emozionala gainditzen saiatuko dira. Istripu zoritxarreko bat tarteko, hitzordua nahiko luketena baino gehiago luzatuko zaie, eta bizitzari buruz duten ikuspegi desberdina aurrez aurre ipini beharko dute.

David Truebaren lan berriak José Sacristán eta María Valverde ditu protagonista eta benetan merezi du aktoreen lana ikusteak.

**Inv./Gonb.: David Trueba, director / zuzendaria**




## MOONRISE KINGDOM V.O.S.E. 19.45 h. · 29.01.2013 · SESIÓN 2123 EMANALDIA

**MOONRISE KINGDOM** · USA · 2012 · 94 min · **Dir / Zuz** Wes Anderson · **G** Wes Anderson y / eta Roman Coppola · **Fot / Arg** Robert D. Yeoman · **Mnt** Andrew Weisblum · **M** Alexandre Desplat · **Prd** American Empirical Pictures / Indian Paintbrush / Moonrise · **Int / Akt** Bill Murray · Tilda Swinton · Bruce Willlis · Edward Norton · Jason Schwartzman · Jared Gilman · Frances McDormand · Harvey Keitel

De *Moonrise Kingdom* han dicho: *"Fatigoso surrealismo. No le encuentro la gracia (...) su tono satírico y alucinado resulta de una sosería alarmante"* (Carlos Boyero; *El País*). Aunque también hay que tener en cuenta que a Boyero el 90% de la programación del Fas no le gustaría; verbigracia, *El caballo de Turín* de Béla Tarr le pareció la peor película de la historia (la cita es suya): *"Me cuentan que Bela Tarr con The Turin horse ha pretendido representar el peso insoportable de la vida. Ignoro si la suya es tan pesada pero puedo jurar por mi santa madre que los kilos de aburrimiento que ofrece su cine se salen de la balanza"*. Pero si los socios del cineclub Fas hacen caso a su sensibilidad cinéfila (muchísimo mayor que la de muchos críticos *"reputados"*) descubrirán en *Moonrise Kingdom* no una película alucinada, sino alucinante..., y mucho más compleja de lo que parece (atentos a su poderosa alegoría). Pero claro, algunos de esos críticos tal vez necesitarían aprender a leer cine en el Fas.

1965. urtean kokatzen da istorioa. Sam eta Suzy maiteminduta dauden nerabeak dira. Bakartiak eta bitxiak, inguruan duten guztia alde batera uztea erabakitzen dute euren "erreinu" propiora ihes egiteko, euren *Moonrise Kingdom*era alde egiteko. **Wes Anderson** irudimen handiko zinema zuzendaria dugu. Bere estiloa nahiko definituta dago, pelikula desberdin, original eta koloretsuak zuzendu ohi ditu. Zuzendari honen pelikuletan koloreak tratamendu berezia duela nabaritzen dugu. ***Moonrise Kingdom*** pelikula koloretsua da, bizitzaz betetako pelikula da.

Zuzendariak errutina, sinesgaitza den horrekin nahasten du era eraginkorrean. Oro har, *Moonrise Kingdom* proposamen desberdin eta originala da. Magiko eta gomendagarria, nerabe ameslarien arteko maitasun istorio bat. Baina..., hori baino askoz gehiago ere bai.

**Al terminar la película tendrá lugar la Asamblea General Anual de los socios y socias del Cineclub Fas / *Pelikula bukatzean Fas Zineklubeko Ohiko Bazkide Asanblada egingo da***



**ANDER V.O.S.E.** **19.45 h. · 05.02.2013 · SESIÓN 2124 EMANALDIA**

**ANDER** · Euskadi · 2009 · 128 min · **Dir / Zuz** Roberto Castón · **G** Roberto Castón · **Fot / Arg** Enrique López · **Mnt** Iván Miñambres · **Prd** Roberto Castón / Fernando Díez / José María Gonzalvo · **Int / Akt** Josean Bengoetxea · Eriz Alberdi · Christian Esquivel · Pilar Rodríguez

**CM: ATOMES (F)** · Bélgica · 2012 · 18 min · **Dir / Zuz** Arnaud Dufeys · **Gran Premio del ZINEBI 2012**

Con decenas de premios a sus espaldas (entre los que destaca el Premio CICAE en la Berlinale, otorgado por la Confederación Internacional de Cines de Arte y Ensayo, o el Premio Lux del Parlamento Europeo), y con gran éxito en Francia y en una docena de países europeos con una oferta cinematográfica más audaz que la española –sumisa hasta la náusea al modelo deprimente de consumo californiano–, ***Ander***, la ópera prima de **Roberto Castón**, es otro de esos ejemplos de que nadie es profeta en su tierra. Ninguneada durante años por las distribuidoras españolas sin que nadie osara (peligrosa palabra) emitir esta fábula; su mejor crítica es precisamente la que pretendía ser peyorativa; quienes la despreciaban lo hacían porque les parecía una película demasiado 'francesa', es decir, de factura impecable, y con el rigor exigido al tratar cualquier tema. En el Cineclub Fas obras como esta encuentran su verdadero espacio.

Ander gayei buruzko gaia lantzen duen euskarazko lehen film luzea da. Berrogei urteak beteak dituen baserritarra da Ander. Ama eta arrebarekin bizi da baserrian, eta bizikleta lantegi batean eta baserriko lanak egiten ematen du egun osoa. Istripu batean hanka hautsiko du eta, baserriko lanak egin ahal izateko, José izeneko Peruko etorkin bat kontratatuko dute, Anderren amak errezeloak izan arren. Joseren etorrerak etxeko bizitza ez ezik, Anderren bizitza ere aldatuko du. Izan ere, ordura arte inoiz izan ez dituen sentimenduak sortuko zaizkio eta horrek bere buruarekin gatazka eragingo dio.

**Sesión especial en colaboración con el Festival Internacional de Cine GLT ZINEGOAK 2013 / *Emanaldi berezia ZINEGOAK 2013 GLT Zinemaren Nazioarteko Jaialdiarekin elkarlanean***

**Inv./Gonb.: Roberto Castón, director / *zuzendaria* y / *eta* exdirector del ZINEGOAK *Zinemaldiaren zuzendari-ohia***



## LAS NIEVES DEL KILIMANJARO V.O.S.E. 19.45 h. · 12.02.2013 · SESIÓN 2125 EMANALDIA

**LES NEIGES DU KILIMANDJARO** · Francia · 2011 · 109 min · **Dir / Zuz** Robert Guédiguian · **G** Robert Guédiguian y / eta Jean-Louis Milesi · **Fot / Arg** Pierre Milon · **Mnt** Bernard Sasia · **M** Pascal Mayer · **Prd** Agat Films & Cie / Ex Nihilo / France 3 Cinéma · **Int / Akt** Ariane Ascaride · Jean-Pierre Darrousin · Gérard Meylan

**CM: LOS MONSTRUOS NO EXISTEN (F/D)** · Euskadi · 2012 · 8 min · **Dir / Zuz** Paul Urkijo

A pesar de haber perdido su trabajo, Michel vive feliz con Marie-Claire. Ambos se quieren desde hace treinta años y sus hijos y nietos los llenan de felicidad. Tienen amigos muy cercanos y están orgullosos de sus combates sindicales y políticos... Pero toda esta dicha estallará en pedazos por culpa de dos hombres armados que les golpean, les atan y les roban violentamente. Su desasosiego será mucho más violento cuando descubran que esta brutal agresión ha sido organizada por uno de los jóvenes obreros...

***Las nieves del Kilimanjaro*** demuestra una vez más la capacidad de **Robert Guédiguian** no solo de contactar con los espectadores (como demuestra el Premio del Público obtenido en la SEMINCI 2011, junto a la Espiga de Plata), sino de reescribir su propio discurso a la luz de los cambios y acontecimientos sociológicos más contemporáneos. Una obra imprescindible para el debate.

*Les neiges du Kilimandjaro* Robert Guédiguianen azken lana da. Marseillan jaio zen zinemagile frantziar honen ibilbide profesionala luze bezain oparoa izan da. Hauxe bere 12. lana dugu eta aurreko filmen artean ez dira gutxi kritikaren oniritzia jaso dutenak. Honela, *L'Argent fait le bonheur*, bere estreineko lanarekin (1992), hasiera eman zion eskuarki arrakastatsu eta saritua izan den karrerari. *Marius et Jeannette* (1998), *La ville est tranquille* (2000) edo *Marie-Jo et ses deux amours* (2001) dira bere ibilbidean nabarmentzea merezi duten zenbait zinta.

Michel eta Marie-Clairek bikote zoriontsua osatzen dute. Senarra langabezian geratu bada ere, bere bizimodua guztiz beteta dago. Bilobak zaintzen, lagunekin elkartzen... biziera atsegina da eurena. Hala eta guztiz ere, laster pairatu beharko duten gorabehera batek beren mundua hankaz gora jarriko du.

**Sesión en colaboración con Economistas sin Fronteras / *Mugarik gabeko Ekonomilariekin elkarlanean emanaldia***
**Inv./Gonb.: Paul Urkijo, director del cortometraje / *laburmetraiaren zuzendaria* y / eta Debate-coloquio con EsF / *MgE-ekin hitzaldi-eztabaida***



**FAUSTO V.O.S.E.** **19.45 h. · 19.02.2013 · SESIÓN 2126 EMANALDIA**

**FAUST** · Rusia · 2011 · 134 min · **Dir / Zuz** Aleksandr Sokurov · **G** Aleksandr Sokurov y / eta Yuri Arabov · **Fot / Arg** Bruno Delbonnel y / eta Bernhard Nicolics-Jahn · **Mnt** Jörg Hauschild · **M** Andrei Sigle · **Prd** · Andrei Sigle · **Int / Akt** Johannes Zeiler · Anton Adasinsky · Isolda Dychauk · Hanna Schygulla · Georg Friedrich

**León de Oro a la Mejor Película en el Festival de Venecia 2011**

La leyenda alemana entre Goethe y Thomas Mann sobre un exitoso sabio insatisfecho con su vida que hace un trato con el diablo, al que le cede su alma a cambio del conocimiento ilimitado y los placeres mundanos. Una historia sobre la condición humana, el poder, la ambición, la existencia, lo conocido y lo desconocido, lo inferior y lo superior, lo existente y lo inexistente, lo moral y lo inmoral, lo lógico y lo ilógico, lo material y lo etéreo, lo terrenal y lo celestial. Una historia sobre *todo* que vertebra la última cinta del cineasta ruso Aleksandr Sokurov, un autor contemporáneo cuya obra es tan relevante como hermética. Con este título, sin duda su obra más extrema, el cineasta alcanzó su mayor éxito: el León de Oro de Venecia en 2011. La crítica ha dicho que *"el resultado de Fausto es muy interesante, pero apabulla a niveles tan grandes..."*. ¿Pero es que debemos temer a ese verbo los socios y socias del Cineclub Fas?

***«Faust»***, **Aleksandr Sokurov**en azken lanak, Veneziako Urrezko Lehoia jaso zuen 2011n eta pelikula honekin boterearі buruzko zikloa osatu du Sokurovek.

Goetheren izenburu bereko obran oinarritutako filma da *«Faust»* (XIX. mendean girotua; alemaniar Faustoren istoria kontatzen da, deabruarekin ituna sinatzen duen jakintsuarena, alegia), baina Thomas Mannen *Doctor Faustus*-en oihartzunak ere baditu. Eszena desatsegin ugari filmatu zituen zuzendariak, baina gero haietako asko soberan zeudela jabetu zen. Nolanahi ere, filma *«iluntasunean galtzen den gizaki baten istorioa da»*, Sokuroven ustez, *«naturak duen okerrenari aurre egin behar dion gizon batena»*. Hasieran Italian filmatzea pentsatu bazuen ere, gero Txekiar Errepublikara, Alemaniara eta Islandiara jotzea hobetsi zuen, Italian *«perfekzio eta edertasun gehiegi»* aurkituko zuelakoan.

**Inv./Gonb.: Toni Abad, escritor, realizador y profesor de cine / *idazle, errealizadore eta zinema irakaslea***



## FERMIN MUGURUIZA

**19.45 h. · 26.02.2013 · SESIÓN 2127 EMANALDIA**

**Filmografía esencial / Oinarrizko filmegintza**: Zuloak (2012, D) · Next Music Station (2010, serie documental de TV / Tbko dokumental sorta) · Checkpoint rock: Canciones desde Palestina (2009, D) · Mirant al cel (2008, banda sonora / soinu banda) · Bass-que Culture (2006, D) · El salto de Beamon (2004, banda sonora / soinu banda)

Fermin Muguruza es uno de los referentes indiscutibles no solo de la música vasca, sino internacional. Con dos bandas míticas a sus espaldas: *Kortatu* y *Negu Gorriak*, cubrió los escenarios en las dos últimas décadas del siglo pasado. En 2006 dirigió su primer documental: *"Bass-que Culture"*, que narra el proceso de grabación del disco *Euskal Herria Jamaica Clash* en los estudios de la familia Marley. En 2008 dirige el documental *"Checkpoint rock: Canciones desde Palestina"*. También ha compuesto la banda sonora del cortometraje *El salto de Beamon* (2004); las canciones de la obra teatral *Xomorroak (Bizitza Lorontzian) / Bichitos (La vida en el tiesto)* y la banda sonora de la película *Mirant al Cel* de Jesús Garay. Durante todo el año 2010 estuvo dirigiendo la serie documental *"Next Music Station"* compuesta de 11 capítulos sobre la música en el mundo árabe, que cubrió los países de Marruecos, Túnez, Egipto, Líbano, Siria, Bahrein, Kuwait, Yemen y Sudán. Su último trabajo es el documental que ahora presentamos: *Zuloak*.

**Fermin Muguruza** Nazioarteko musikaren esparruko sortzaile nabarmenenetako bat da. Irunen jaioa, 80ko hamarkadan Euskal Herriko musika eszenaren talde eraginkorrenetako bat sortu zuen: *Kortatu*, eta 80ko hamarkadaren hondarrean beste talde mitiko bat: *Negu Gorriak*. 2006an. Marley familiaren estudioan egindako grabazio prozesua *"Bass-que Culture"* dokumentalean jaso zuen Muguruzak eta 2008an, *"Checkpoint Rock. Canciones desde Palestina"* dokumentala zuzendu zuen. Horrez gain, *El salto de Beamon* film laburraren soinu banda sortu du; *Xomorroak (Bizitza Lorontzian)* antzezlanaren kantuak landu ditu, eta Jesus Garayk zuzendutako *Mirant al Cel* fikzio-dokumentalaren soinu banda konposatu du. 2010. urte osoa *"Next Music Station"* dokumental sorta zuzentzen eman zuen. Herrialde arabiarretako musikari buruzko 11 dokumental horiek egiteko, Maroko, Tunisia, Egipto, Libano, Siria, Bahrein, Kuwait, Yemen eta Sudanen izan zen Muguruza. Bere azken lana ***Zuloak*** dokumentala da.



**ZULOAK V.O.S.E.** **19.45 h. · 26.02.2013 · SESIÓN 2127 EMANALDIA**

**ZULOAK (D)** · Euskadi · 2012 · 99 min · **Dir / Zuz** Fermin Muguruza · **G** Eider Rodríguez y / eta Fermin Muguruza · **Fot / Arg** Aritz Moreno · **Mnt** Asier García y / eta Dani Urdiales · **M** Amanita Muskaria · **Prd** · Talka Records and Films / EiTB / Menara Producciones · **Int / Akt** Arrate Rodríguez · Ainhoa Unzueta · Izaskun Muruaga · Tania de Sousa

La artista poliédrica Arrate Rodríguez estaba desarrollando un proyecto: la creación de un grupo de música formado exclusivamente por chicas: definiendo el estilo, cuidando los detalles estéticos... y registrando todo el proceso con la cámara. *"Si Andy Warhol lo hizo con la Velvet Underground* –solía decir Arrate– *yo voy a hacer lo mismo con Zuloak"*. Las cosas, sin embargo, debieron de torcerse en algún momento, y decidió abandonar su "experimento". Todo el material que tenía grabado se lo dejó a su hermana Eider para que esta se lo hiciera llegar a su vez al músico y documentalista Fermin Muguruza, junto a un *video-mensaje* enviado desde San Francisco. En este documental, Muguruza sigue la trayectoria de la banda de rock *Zuloak*, formada íntegramente por mujeres, para reivindicar también la aportación de otras importantes artistas musicales del País Vasco.

Arrate Rodríguez artista poliedrikoak musika talde bat osatu nahi zuen hastapenetik: taldekideak hautatu, musika estiloa zehaztu, ñabardura estetikoak zaindu... eta prozesu guztia kamerarekin erregistratu. *"Andy Warholek Velvet Underground egin zuen; nik Zuloak egingo dut"* aipatzen zuen umorez Arratek. Gauzak nonbait, okertu egin ziren, eta "experimentua" bertan behera uztea erabaki zuen. Grabaturiko material guztiari San Franciscon grabatutako bideo-mezu bat gehitu zion, eta dena bidali zion Fermin Muguruza musikaria eta dokumentagileari, bere ahizpa Eiderren bidez. Fermin Muguruza musikariaren dokumental berri honek emakumez bakarrik osatutako *Zuloak* rock taldearen ibilbidearen jarraipena egiten du, Euskal Herriko beste emakumezko musikari batzuen ekarpena ere aldarrikatzeko.

**Inv./Gonb.: Fermin Muguruza, director / *zuzendaria***
**Sesión especial / *Emanaldi berezia* · Al terminar la proyección concierto acústico del grupo Zuloak / *Proiekzioa bukatzean Zuloak taldearen kontzertu akustikoa***



## CUENTOS DE TOKIO V.O.S.E.

**19.45 h. · 05.03.2013 · SESIÓN 2128 EMANALDIA**

**TOKYO MONOGATARI** · Japón · 1953 · 139 min · **Dir / Zuz** Yasujiro Ozu · **G** Yasujiro Ozu y / eta Kôgo Noda · **Fot / Arg** Yushun Atsuta · **M** Takinori Saito · **Prd** · Shochiku · **Int / Akt** Chishu Ryu · Chiyeko Higashiyama · Setsuko Hara · So Yamamura · Haruko Sugimura

No había movimiento. Tan solo planos fijos. Pequeños interiores japoneses. Conversaciones familiares, elipsis, diagonales, la asimetría entre los padres y los hijos y los nietos. Ventanas, cables, postes, chimeneas. Una película sobre el paso del tiempo. Y sobre la soledad, la vejez, la armonía, el sosiego y el desasosiego...; la ingratitud, la calma, la calma y los detalles pequeños, muy pequeños. Tras una hora de película, ocurre lo imposible: el travelling más emotivo de la historia te golpea, como una pedrada. Una pared interminable da paso a los ancianos, sentados en la hierba. Aguardan, en la calle, a que la nuera vuelva del trabajo. Ese modesto recorrido de la cámara no es otra cosa que una lágrima de Ozu. El estilo no es una formalidad en este caso. Pocas veces en la historia del cine se ha conseguido tal simbiosis perfecta de fondo y forma (y una manera de encuadrar como nadie lo ha hecho). Si os dejáis llevar tal vez os aproximéis al milagro...

**Yasujiro Ozu**, Japoniako filmegilea (Tokio, 1903-1963). 1922an Tokioko Shochiku estudioetan hasi zen lanean argazki eta zuzendari laguntzaile gisa. 1927an egin zuen bere lehenengo filma, *Zange no yaiba (Penitentziazko sablea)*. 1920. hamarkadan film mutuak egin zituen, Estatu Batuetako eta Europako zinemaren eragin handia zuten komediak eta *shomin-geki* motako filmak (jende arruntaren dramak). 1930etik 1935era errealismo soziala landu zuen, alde batera utzita sartaldeko zinemaren estiloa. 1935etik aurrera Ozuren filmek familia hartu zuen ia gai bakartzat, betiere nostalgia handia dariela. Bigarren Mundu Gerraren ondoren egin zituen film guztietan gai, giro, eta teknika bera erabili zuen: film geldiak, isilunez beteak, budismoak denborari eta espazioari buruz duen ikuskera islatzen dutenak. Film nagusiak: *Tokyo no onna (1933, Tokioko emakumea)*, *Hitori musuko (1936, Seme bakarra)*, *Bakushu (1951, Uda hasiera)*, *Tokyo monogatari (1953, Tokioko ipuinak)*.

**Inv./Gonb.: Javier Tolentino, director de «El séptimo vicio», el programa de cine de Radio 3 / *«El séptimo vicio» 'Radio 3'ko zinemari buruzko saioaren zuzendaria***



**ALPS V.O.S.E.** **19.45 h. · 12.03.2013 · SESIÓN 2129 EMANALDIA**

**ALPS** · Grecia · 2012 · 128 min · **Dir / Zuz** Yorgos Lanthimos · **G** Yorgos Lanthimos y / eta Efthymis Filippou · **Fot / Arg** Christos Voudouris · **Mnt** Yorgos Mavropsaridis · **Prd** · Athina Rachel Tsangari y / eta Yorgos Lanthimos · **Int / Akt** Stavros Psyllakis · Aris Servetalis · Johnny Vekris · Ariane Labed

**CM: DEUS ET MACHINA (F)** · Euskadi · 2012 · 8 min · **Dir / Zuz** Koldo Almandoz

Una enfermera que trabaja por las noches en un hospital se ocupa de atender las necesidades de las familias que han perdido a sus seres queridos. Forma parte de un grupo llamado "Alps", cuyos miembros ofrecen, a cambio de dinero, reemplazar a los muertos en la vida diaria de esas familias.

***Alps***, la última obra del director griego **Yorgos Lanthimos** –que tanto (nos) sorprendiera con *Canino* (2009)–, parte de una idea tan descabellada como absolutamente original (lo que ya es de agradecer) para arrastrar al espectador dentro de su hermética red de relaciones inhumanas a través de su característico discurso elíptico y alegórico, tan inusual hoy en el cine contemporáneo. Con sus ásperos y envenenados sintagmas y una ironía particularmente perversa, Lanthimos inicia un viaje al fondo profundo en donde hace tiempo se sumergió el (sin)sentido de la vida.

Latza da greziarren egoera gaur egun. Zakarra. Ohituta gaude antzinako tenplu eta orakuluen dekadentzia ikusteaz. Baina ohituta al gaude krisi ekonomiko eta sozialei aurre egiteaz? **Yorgos Lanthimos**-ek irrealitate krudeleko filmak egiten ditu horretarako. Latzak. Zakarrak. Isiltasunek hitz egiten dute greziarraren filmetan. Askotan ez dakigu antzezpenak noraino doazen, ezta zein neurritan isiltasun horien beharra dagoen, baina hor daude. Atenaseko zuzendariaren *opera prima* ***Kinetta*** (2005) izan zela esan dezakegu. Bertan narrazio ez linealak, isiltasun luzeak eta desenfokeak dira ugari. Gus Van Sant-ek erabiltzen dituen tresnetaz baliatzen da greziarra. Baina zerk uzten du ikuslea hain ahozabalik? Gizakiaren krudeltasunak. 2009an proiektu landuagoa bideratzen du Lanthimos-ek: ***Dogtooth*** (Fas Zineklubean ikusita). ***Attenberg*** (2010) eta ***Alps*** (2012) filmekin osatzen da bere filmografia.

**Inv./Gonb.: Iratxe Fresneda, Profesora del Departamento de Comunicación Audiovisual y Publicidad de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación de la UPV-*EHUko irakaslea***



# COTTON CLUB

**LIVE MUSIC & DJ'S**

C/ GREGORIO DE LA REVILLA, 25
(entrada por Simón Bolivar)

## Una promoción de cine

**caña 1€ · copa 4€ (*beefeater, ballantine's, absolut y havana3)**

***todos los días de 20:30 a 00:30**



HOLY MOTORS V.O.S.E. 19.45 h. · 19.03.2013 · SESIÓN 2130 EMANALDIA

**HOLY MOTORS** · Francia · 2012 · 115 min · **Dir / Zuz** Léos Carax · **G** Léos Carax · **Fot / Arg** Yves Cape y / eta Caroline Champetier · **M** Neil Hannon · **Prd** · CNC / Les Films du Losange / Pierre Grise Productions · **Int / Akt** Dennis Lavant · Edith Scob · Kylie Minogue · Michel Piccoli · Eva Mendes

**CM: HAMAIKETAKOA (F)** · Euskadi · 2012 · 4 min · **Dir / Zuz** Telmo Esnal

Un día en la vida de un ser con múltiples caras: asesino, mendigo, ejecutivo, monstruo, padre de familia... (atentos a la interpretación de Dennis Lavant de todos estos roles). Pero, ¿qué es, en realidad, *Holy motors*? ¿Una película excitante, opaca, desgarradora y completamente chalada o una sensación de tonterías vacuas y pretenciosas? ¿Una obra extraña y maravillosa, mutante e inconmensurable u oscena y totalmente demencial? ¿Una lección de cine libre y salvaje, críptico, violento y genial... o un delirio torpe, enfermizo, deslavazado y febril? ¿Un salto sobre la barrera de la normalidad o una obra inescrutable, hipnótica, a ratos muy idiota pero casi siempre bellísima? ¿Una experiencia sensorial de alta graduación o un film no apto para todos los paladares? Es seguro que todos y estos adjetivos podrían aplicarse a *Holy Motors*, pues todo cabe en una película en la que hasta los coches hablan.

*Holy Motors* film sailkaezina da eta bere sortzailea, **Léos Carax**, zinema garaikidearen *enfant terrible* horietako bat da. 1986an egin zuen bere lehen lan luzea, *Boy Meets Girl*, harridura handia eragin zuen lan bitxia. Horren ostean etorriko ziren haren bi pelikularik sonatuenak: *Mauvais Sang* eta *Les Amants du Pont-Neuf*, biak Denis Lavant eta Juliette Binochekin. Baina bi film horiek oso kritika onak lortu arren, ez zuten ikusleen interesa piztu, eta Caraxek ezin izan zuen film gehiagorik egiten segitu. Zortzi urte luzeko isiltasun artistikoa etorri zen, 1999an *Pola X* egin zuen arte. Beste bederatzi urtez isilik, eta 2008an *Tokyo!* film kolektiboa estreinatu zuen. Holy Motors-ek aurpegi askotako izaki baten egunerokoa erakusten du. Pertsonaia bera hiltzaile, eskale, bankari edo munstroa izaten ahal da. Berriro ere, Denis Lavant aktore kutunarekin lan egin du Caraxek, eta ez nolanahi gainera; aktoreak hamaika rol diferente ditu pelikulan.

**Inv./Gonb.: Pablo Repáraz, profesor de Comunicación Audiovisual y antiguo miembro de la Junta de Gobierno del Cineclub Fas / *Ikus-entzunezko-irakaslea eta Fas Zineklubeko Batzorde-gobernuko kide-ohia***




KZ

**Alameda San Mamés, 10**

**Restaurante colaborador con el Cineclub Fas**

**Fas Zineklubarekin jatetxe laguntzailea**



OÍRSE V.O. 19.45 h. · 26.03.2013 · SESIÓN 2131 EMANALDIA

**OÍRSE (D)** · España · 2013 · 54 min · **Dir / Zuz** David Arratíbel · **G** David Arratíbel · **Fot / Arg** David Aguilar · **Mnt** Zazpi T'erdi · **M** Albaro Arizaleta (El Columpio Asesino)· **S** David Erkizia · **Prd** · Filmotive / Zazpi T'erdi / Bosalay
**CM: CASA VACÍA / ETXE HUTSA (D)** · Euskadi · 2012 · 20 min · **Dir / Zuz** Jesús Mª Palacios

Aquel día un sonido fantasma empezó a sonar en mi cabeza: un pitido y unas cigarras que sólo yo escuchaba, o quizá alguien más lo hiciera. Como la mayoría de las personas, huía del silencio para no escuchar el interior. Porque el silencio es sólo el principio.

En este film David Arratibel nos muestra lo que significa convivir con los acúfenos o tinnitus, un fenómeno perceptivo que consiste en notar golpes o sonidos en el oído que no proceden de ninguna fuente externa. En su búsqueda, la película no pretende sensibilizar al espectador ni buscar explicación científica a este problema, sino plantear diversas preguntas que quizás no tengan una misma respuesta. Un documental-ensayo de alta calidad, de los productores de *Nao Yik*, que tan buen regusto dejara el año pasado en nuestro cineclub.

Egun hartan, soinu fantasma bat hasi zen soinua egiten neure buruan: soilik nik entzuten nituen ziztu eta txitxarrak, edo beharbada beste norbaitek ere entzungo zituen. Pertsona gehienek bezala, isiltasunari ihes egin nion, nere barrenak ez entzutearren. Isiltasuna, soilik hasiera bait da.

Film honetan David Arratibelek akufenoekin edo tinnitusarekin bizitzeak esan nahi duena erakusten digu. Akufenoa inongo kanpoko jatorririk ez duten arren belarrietan entzuten diren soinuek eta kolpeek sortutako fenomeno pertzeptiboa da. Pelikula honek proposatzen duen bilaketak ez du ikuslea sentsibilizatzea, edo arazo honi azalpen zientifikoa bilatzea helburu, beharbada erantzun bakarra ez duten galderak egitea baizik.

**Sesión en colaboración con Filmotive y Attineus /** ***Filmotive eta Attineus-ekin elkarlanean emanaldia***
**Inv./Gonb.: David Arratíbel, director /** ***zuzendaria*****; Iñaki Sagastume, productor /** ***ekoizlea*****; Jesús Mª Palacios, director del cortometraje /** ***laburmetraiaren zuzendaria*****; Xabier Erkizia, sonido /** ***soinua***

# PROGRAMA · EGITARAUA

## ENERO · URTARRILA

**08/01/2013** · Sesión 2119 emanaldia
**Sesión Especial Inauguración 60º Aniversario**
**EL HOMBRE MOSCA**
Fred C. Newmeyer y / eta Sam Taylor · 2010 · 73 min · VOSE
**+ BEERBUG** (CM/LbM) · Ander Mendia · Euskadi · 2012
Inv./Gonb.: Adela González y / eta Ander Mendia

**10/01/2013** · Sesión 2120 emanaldia
**Sesión Especial en colaboración con Golem · Preestreno**
**AMOUR**
Dir / Zuz: Michael Haneke · 2012 · 127 min · VOSE
Inv./Gonb.: Juan Zapater

**15/01/2013** · Sesión 2121 emanaldia
**ESTO NO ES UNA PELÍCULA**
Dir / Zuz: Jafar Panahi · 2011 · 75 min · VOSE
**+ 8 (OCHO)** (CM/LbM) · Jorge Barrio · Euskadi · 2011
Inv./Gonb.: Juan Zapater

**22/01/2013** · Sesión 2122 emanaldia
**MADRID 1987**
Dir / Zuz: David Trueba · 2011 · 104 min · VO
Inv./Gonb.: David Trueba

**29/01/2013** · Sesión 2123 emanaldia
**MOONRISE KINGDOM**
Dir / Zuz: Wes Anderson · 2012 · 94 min · VOSE

## FEBRERO · OTSAILA

**05/02/2013** · Sesión 2124 emanaldia
**ANDER**
Dir / Zuz: Roberto Castón · 2009 · 128 min · VOSE
**+ ATOMES** (CM/LbM) · Arnaud Dufeys · Bélgica · 2012
Sesión en colaboración con ZINEGOAK´13
Inv./Gonb.: Roberto Castón

**12/02/2013** · Sesión 2125 emanaldia
**LAS NIEVES DEL KILIMANJARO**
Dir / Zuz: Robert Guédiguian · 2012 · 109 min · VOSE
**+ LOS MONSTRUOS NO EXISTEN** (CM/LbM) · Paul Urkijo
Sesión especial en colaboración con EsF
Inv./Gonb.: Paul Urkijo

**19/02/2013** · Sesión 2126 emanaldia
**FAUSTO**
Dir / Zuz: Aleksandr Sokurov · 2012 · 134 min · VOSE
Inv./Gonb.: Toni Abad

**26/02/2013** · Sesión 2127 emanaldia
**ZULOAK (D)**
Dir / Zuz: Fermin Muguruza · 2012 · 99 min · VOSE
Inv./Gonb.: Fermin Muguruza
**Sesión Especial · Concierto acústico de Zuloak**

## MARZO · MARTXOA

**05/03/2013** · Sesión 2128 emanaldia
**CUENTOS DE TOKIO**
Dir / Zuz: Yasujiro Ozu · 1953 · 139 min · VOSE
Inv./Gonb.: Javier Tolentino

**12/03/2013** · Sesión 2129 emanaldia
**ALPS**
Dir / Zuz: Yorgos Lanthimos · 2012 · 128 min · VOSE
**+ DEUS ET MACHINA** (CM/LbM) · Koldo Almandoz · Euskadi · 2012
Inv./Gonb.: Iratxe Fresneda

**19/03/2013** · Sesión 2130 emanaldia
**HOLY MOTORS**
Dir / Zuz: Léos Carax · 2012· 115 min · VOSE
**+ HAMAIKETAKOA** (CM/LbM) · Telmo Esnal · Euskadi · 2012
Inv./Gonb.: Pablo Repáraz

**19/03/2013** · Sesión 2130 emanaldia
**OÍRSE (D)**
Dir / Zuz: David Arratíbel · 2012· 54 min · VOSE
**+ CASA VACÍA** (CM/LbM, D) · Jesús Mª Palacios · Euskadi · 2012
Inv./Gonb.: David Arratíbel, Iñaki Sagastume, Jesús Mª Palacios, Xabier Erkizia



# cineclubfas

Foro del Cine y de la Imagen de Bilbao

Centro cívico de Olabeaga
San Nicolás de Olabeaga, 33, 2º piso
Tel.: 944 425 344 Fax: 944 205 198
info@cineclubfas.com
www.cineclubfas.com
Twitter: @cineclubfas
Facebook: Cineclub.Fas

Proyecciones: Salón El Carmen (Plaza Indauchu)
Emanaldiak: El Carmen aretoan (Indautxu plazan)

## TARIFAS 2013 / 2013 SALNEURRIAK

| | | |
|---|---|---|
| Renovación carné | Txartela berritzea | 80 € |
| Carné nuevo socio | Kide berri txartela | 60 € |
| Bono 10 entradas | 10 sarrera bonua | 41 € |
| Cuota de preinscripción | Izen emate kuota | 5 € |

El Cineclub FAS dispone de una completa biblioteca con cientos de libros y miles de revistas de cine. · FAS Zineklubak liburutegi zerbitzu osotu bat eskaintzen du, entziklopedi eta milaka liburu eta aldizkariekin.

Todas las proyecciones del trimestre serán gratuitas para nuestros socios
Hiruhilabeteko emanaldi guztiak dohainik izango dira bazkide guztientzat

Imágenes: Portada, *El hombre mosca*; págs. 22 y 23: *Holy motors*
Coordina y diagrama el programa: Txus Retuerto

## Patrocinadores / Babesleak

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO
KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA
ÁREA DE CULTURA Y EDUCACIÓN

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

## Colaboradores / Laguntzaileak

golem

INSTITUT FRANÇAIS
BILBAO

BANATU
FILMAK

KIMUAK

FILMOTIVE

Mugarik gabeko Ekonomilariak
Economistas sin Fronteras

Attineus

Zinegoak

COTTON CLUB

KZ

J.M. Zabala
euskaltegia - akademia

MULTICINES - 8

Librería
CAMARA